



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BASO SUTEETARAKO LARRIALDI PLAN BEREZIAREN ALDAKETA

Euskal Autonomia Erkidegoko Baso Suteetarako Larrialdi Plan Berezia, Gobernu Kontseiluaren 2016ko abenduaren 27ko Erabakiaren bidez onartutakoa, aldatu da eta honela geratu da:

Lehenengoa. 3. atalean (Marko legala) estatu mailako araudiaren barruan azken gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

“734/2019 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, zeinaren bidez babes zibileko plangintzaren oinarrizko jarraibideak eta babes zibileko Estatuko planak aldatzen diren, larrialdiak gertatzen direnean desgaitasuna duten pertsonen eta egoera bereziki ahulean dauden taldeei eskaintzen zaien arreta hobetzeko xedez”.

Bigarrena. 5. atalean (Oinarrizko eginkizunak) amaierako gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

“Desgaitasuna daukaten pertsonen eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuen beharrak kontuan hartzea eta horien asistentzia eta segurtasuna bermatzeko jarduketa-protokolo espezifikoak ezartzea”.

Hirugarrena. 7. ataleko (Baso-suteen ondorioz larrialdiko babes zibilaren plangintzarako oinarrizko elementuak) 7.5 puntuan (Planean jaso beharreko oinarrizko jarduerak) aldaketa hauek egin dira:

d) hizkia aldatu da eta honela idatzi da:

“d) Herritarrak informatzea: Herritarrak abisatzeko mekanismo egokiak zehaztuko dira, suterik balego, herritarrak alertatzeko eta kasu bakoitzean egin beharreko buruz zein beste babes neurri batzuk aplikatzeari buruz informatzeko. Informazio-programek formatu egokiak eta beharrezko baliabideak izan behar dituzte pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarriak eta ulergarriak izateko. Desgaitasuna duten biktimei edo biktimaren senideei informatu behar zaienean, egin beharreko egokitzapenak egingo dira eta, hala badagokio, langile espezializatuen laguntzarekin”.



f) hizkia aldatu da eta honela idatzi da:

“f) Laguntza logistikoa: Aipatutako jarduerak, itzaltzeko lanak eta larrialdian zehar martxan jarri behar diren gainerako ekintzak burutzeko behar diren ekipamendu eta hornigai guztiez nola hornitu aurreikusi behar da. Desgaitasuna duten pertsonen beharrei erantzuteko beharrezkoak diren baliabideen mobilizazio- eta jarduketa-prozedurak daude, asistentzia eraginkorra ematen zaiela bermatzeko, irisgarritasun unibertsala bermatzen duten neurri eta baliabide espezifikoak kontuan hartuta”.

Beste hizki bat gehitu da, g), honela idatzita:

“g) desgaitasuna duten pertsonen eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuei asistentzia egokia ematea”.

Laugarrena. 8. ataleko (Planaren egitura eta antolaketa) 8.1 puntuan (Planaren zuzendaritza), eginkizunen barruko zazpigarren gidoia aldatu da, herritarrei helarazi beharreko informazioa erabakitzeari buruzkoa, eta honela idatzi da:

“Erabakitzea herritarrei zer informazio helarazi, eta ziurtatzea informazio hori desgaitasuna duten pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarria eta ulergarria dela”.

Bosgarrena. 8. ataleko (Planaren egitura eta antolakuntza) 8.4 puntuan (Informazio-kabinetea):

Azken gidoia aldatu da, hemendik aurrera azken-aurrekoa izango da, eta honela idatzi da:

“Kaltetuta gertatu ahal izan direnei buruzko informazio guztia lortzea, zentralizatzea eta ematea; familiakoekin harremanak erraztea eta pertsonak aurkitzeko laguntza ematea. Desgaitasuna duten biktimei edo biktimaren senideei informatu behar zaienean, egin beharreko egokitzapenak egingo dira eta, hala badagokio, langile espezializatuen laguntzarekin”.

Amaieran beste gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

“Informazioa, desgaitasuna duten pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarria eta ulergarria izan dadin, formatu egokien bidez eta beharrezko mekanismoen bidez ematen dela bermatzea”.



Seigarrena. 8.6 ataleko (Ekintza-taldeak) 8.6.2 puntuan (Segurtasun-taldea):

Eginkizunen barruko hirugarren gidoia aldatu da, herritarrentzako abisuak zabaltzen laguntzeari buruzkoa, eta honela idatzi da:

“Herritarrei oharrak eta informazioa helarazten laguntzea eta, aldi berean, informazioa, desgaitasuna duten pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarria eta ulergarria izan dadin, formatu egokien eta beharrezko mekanismoen bidez ematen dela ziurtatzea”.

Amaieran beste gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

“Desgaitasuna duten pertsoneri eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuei asistentzia egokia bermatzea”.

Zazpigarrena. 8.6 ataleko (Ekintza-taldeak) 8.6.3 puntuan (Osasun-taldea) azken gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

“Desgaitasuna duten pertsoneri eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuei asistentzia egokia bermatzea”.

Zortzigarrena. 8.6 ataleko (Ekintza-taldeak) 8.6.4 puntuan (Laguntza Logistikoko taldea) eginkizunen barruan azken gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

“Desgaitasuna duten pertsonen beharrei erantzuteko beharrezkoak diren baliabideen mobilizazioa eta jarduera kudeatzea, eta horrela asistentzia eraginkorra ematen zaiela bermatzea, irisgarritasun unibertsala bermatzen duten neurri eta baliabide espezifikoko kontuan hartuta”.

Bederatzigarrena. 11. ataleko (Foru- eta toki-mailako jarduera-planak) 11.1.3 puntuan (Foru Planaren mantenimendua), jarduten duten pertsonen prestakuntzari eta eguneraketari buruzko paragrafoa aldatu da, eta honela idatzi da:

“Planean parte hartzen duten pertsona guztiek kasu bakoitzean adierazitako eginkizunetarako ondo prestatuta egon behar dute. Berariazko prestakuntza jaso beharko dute desgaitasuna daukaten pertsonak eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuk artatzeko, ager daitezkeen ezaugarri eta behar bereziak kontuan hartuta”.



Hamargarrena. 11. ataleko (Foru- eta toki-mailako jarduera-planak) 11.2.3 puntuan (Udal Planaren mantenimendua), jarduten duten pertsonen prestakuntzari eta eguneraketari buruzko paragrafoa aldatu da, eta honela idatzi da:

“Jarduten duten pertsonen prestakuntza eta eguneraketa. Berriazko prestakuntza jaso beharko dute desgaitasuna daukaten pertsonak eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuk artatzeko, ager daitezkeen ezaugarri eta behar bereziak kontuan hartuta”.

Hamaikagarrena. 12. ataleko (Baso-suteen prebentzioa) 12.1 puntuan (Gizarte-prebentzioa) azken-aurreko paragrafoa aldatu da eta honela idatzi da:

“Heziketa zabaltzeko lan hau aldizka eta etengabe egin beharko litzateke, foiletoren, kartelen, pegatinen, eta komunikabideetan iragarkien eta kanpainen bidez. Prebentzio-programa horiek formatu egokiak eta beharrezko baliabideak izan behar dituzte, pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarriak eta ulergarriak izateko”.

Hamabigarrena. 13 ataleko (Planaren ezarpena eta mantenimendua) 13.1 puntuan (Ezarpena), planaren ezarpenak biltzen dituen ekintzen barruko azken gidoia aldatu da eta honela idatzi da:

“Herritarren artean hedatzen dela bermatzea, komunikabide, kartel hezitzaile, triptiko, pegatina, eta abarren bidez, hartu beharreko gomendioei eta prebentzio-neurriei buruzko mezu argi eta zuzenak erabiliz. Informazio-programa horiek formatu egokiak eta beharrezko baliabideak izan behar dituzte, pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarriak eta ulergarriak izateko”.

Hamahirugarrena. 13. ataleko (Planaren ezarpena eta mantenimendua) 13.2 puntuan (Mantenimendua) etengabeko prestakuntzari buruzko gidoia aldatu da eta honela idatzi da:

“Etengabeko prestakuntza: Bertan lanean ari direnen prestakuntzak etengabea izan behar du, etengabe berrikusten eta eguneratzen den dokumentua baita. Larrialdietan esku-hartzeko zerbitzuek berriazko prestakuntza jaso beharko dute desgaitasuna daukaten pertsonak eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuk artatzeko, ager daitezkeen ezaugarri eta behar bereziak kontuan hartuta”.